

Adimen-garapenaren estimulazioa familiarik

Jaiotzen den une beretik haurtxoak “pentsatzen, arrazoitzen edota hitz egiten” ikasteko potentzial izugarria du eguneroko bizitzarekin erlazionatutako alderdiei nahiz eskolarekin erlazionatutakoei dagokienez. Potentzial hori oinarri hartuta, adimena estimulatu eta garatu daiteke.

Estimulazioa, ume baten garapen-aldi ezberdinen ikaskuntza errazten duten zenbait jarduera garatzean datza, adin goiztiar batetik bere gaitasunak ahalik eta gehien garatuz, “gehiegi estimulatu” gabe. Hori dela eta, familiak ez du gehiegizkoa edo behartua den interesa azaldu behar, ezta soilik seme-alabaren “adimenarekin” zerikusia duten alderdiei bakarrik erreparatu behar, izan ere garrantzitsuena afektibitatearen eta adimenaren arteko oreka bilatzea da.

Hala ere, egia da familia-testuingurua bera eta bertan eratzen diren harremanak egokiak izan daitezkeela umeen adimen-garapena sustatzeko. Gakoetako bat, haur-gaitasuna jarduera anitzetan handiagotzen den heinean seme-alabei laguntza gutxiago eskaintzea izango litzateke, bai haurren eguneroko eginkizunetan (jaten, janzten...) baita jolasetan ere.

Hona hemen familiek, beraien seme-alaben adimen-garapena eta garapen linguistikoa estimulatzeko erabil ditzaketen estrategiak:

- Etxean, liburuak, material didaktikoak eta ordenagailua izatea.
- Egoera eta estimulu berrien eskaintza zabal eta anitza: bidaiak eta jarduera kulturalak.
- Eguneroko bizitza, ordutegi erregular eta aurretik ezaguna denaren arabera antolatu, ezagunak diren arauak ezarriaz batera (segurtasun pertzepzioa).
- Harreman sozialak sustatu.
- Adierazten utzi, beraien txanda errespetaraziz.
- Umeen ideiak, iritziak eta lehentasunak errespetatu eta baloratu.
- Kontzeptu berriak ikastera eta eskolan ikasitakoa indartzera animatu (koloreak, abestiak, lekuak, zenbakiak, hitzak, etab.)
- Hezkuntza-zentroan ikasitakoaz interesa azaldu.
- Beraien lorpenak indartu, bereziki, beraien esfortzuak emaitza arrakastatsuak ematen ez dituztenean.
- Beraiekin jostatu: jolas fisikoetara, joko-arauetara, jolas kooperatiboetara eta kirola praktikatzera.

- Hitz berriak irakatsi eta gaizki adierazitako hitzak edota aditz-denborak berehala zuzendu.
- Istorioak kontatu eta ipuinak irakurri.

Seguru asko, eskaintako orientazio bakoitza modu espezifikoago batean zehaztu daiteke familia bakoitzaren eguneroko bizitzaren parte bilakatzeko, familia-testuinguru bakoitzaren beharrian eta ezaugarri espezifikoetara egokitzeko.

Laburpena

Funtsezkoa da gurasoek seme-alabei estimulazio egokia eskaintzea, familia baita lehenengo ikaskuntza-testuingurua. Horretarako, ez da beharrezkoa jostailu edota liburu gehiegi izatea. Egia da, gaur egun jostailu asko daudela garapen eremu ezberdinak sustatzen laguntzen dutenak (psikomotorra, hizkuntza...), baina horiek ez dute ezertarako balio, umea, batez ere txikia denean, jostailu horiekin bera bakarrik jolasten uzten badugu.

Dra. Ainhoa Manzano Fernández
Dr. Juan Luís Martín Ayala
ETXADI
Familia-psikologia Unibertsitate-zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia